



KONGOKO EMAKUMEEN PARTAIDETZA ARTISAU-MEATZARITZAN

Rubaya Gomatik, Ipar Kivuko probintzia-hiriburutik, hirurogei kilometrora dagoen herrixka da; Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean dago. Bertara iristea zaila da azpiegitura falta dela-eta, baina hori ez da oztopo izan 2014az geroztik milaka lagun herri horretara bizitzera joateko. Hiru urtean, 1.287 biztanle izatetik 40.000 biztanletik gora izatera igaro da herria. Hazkunde demografiko ikusgarri hori hiritik hurbileko meategietako «ziurtagiri berdeak» bultzatu du.

Aintzira Handietako eskualdeko Nazioarteko Konferentziaren ziurtagiri-sistemaren bitartez, bisitak egiten dituzte urtero meategietara, hiru koloreen bidez (berdea, horia edo gorria) horiek kalifikatzeko; koloreak esleitzen dira talde armatuen kontrolpean egotearen eta haurren esplotazioa garatzearen arabera.

«Koltanaren boomarekin», handik gertuko familia nekazari askok landan lan egiteari utzi diote, artisau-meatzaritzak erakarrita. Horrek guztiak ondorio esanguratsuak izan ditu komunitate horietako emakumeen bizitzan.

Lehenik eta behin, Rubayara joan diren emakumeak erabat nekazaritzan jardutetik artisau-meatzaritzarekin zerikusia duten jardueretan bazterreko lekua hartzera pasatu dira. Beren bizibidea osatzen zuten hektarea landagarriak zorrozki murriztu dira, gutxi batzuen esku (gehienetan gizonezkoak) dauden meatzaritzako kontzesioak hedatu diren heinean.

Emakumeek artisau-meatzaritzan sartu nahi izan dutenean, ez dute batere erraza izan. Harrobietan emakumeen lana mugatu egin dute kasu askotan, bai aurreiritzi matxistak direla medio (emakumeek hilerokoa duten artean ez luketela meatzeetara sartu behar dioten ohiturak, kasu), bai araudien interpretazio interesatuak direla medio¹. Lan handiagoa egiten dute, ordea, minerala prozesatzeko eta garraiatzeko prozesuetan; harriak birrintzen dituzte, gertuko erreketan garbitzen dituzte atal balioetsuak lohitasunetatik bereizteko, zakuratu egiten dituzte, eta zakuak ondoko herrietara garraiatzen dituzte.

Mineral-garbitokietan substantzia kimikoak erabiltzeak ingurumena kutsatzeaz gain, kalte larriak eragiten ditu osasunean. Bestalde, garraio-lanak esker txarrekoak (zakuak 50 kilogramo pisatzera irits daitezke) eta arriskutsuak (talde armatuek eta ofizial ustelek indarkeria erabil dezakete garraio-bideetan) ere badira.

Bigarren, biztanleriaren hazkundera eta osasunerako eta hezkuntzarako sarbidearen hedapena ez dira proportzionalak izan, eta, **dauden baliabide urriekin, eskoletan mutikoei ematen zaie lehen-tasuna**. Hori dela eta, Rubayako sarreran dagoen errefuxiatuen esparruan bizi diren neskatila askok eta askok ezkontza goiztiarrak onartzen dituzte azkenean, pobreziatik ihes egiteko; edo prostituituak ere izaten dira.

Emakumeei zuzendutako osasun-programa espezifikorik ez dagoenez, sexu-jazarpenaren biktimek gizarte zibileko erakundeen laguntza baino ez dute jasotzen; hala nola, Synergie des Femmes elkartearena.

Azkenik, **emakumeen ahotsa ez da kontuan hartu** meatzeetako ziurtagirien prozesuan. Prozesu hori abian jarri zenetik, garapen integraleko plan bat ari dira eskatzen, emakumeen interesak eta beharrak ordezkatzeko eremua izango duena, eta aukera emango diena erabakiak hartzerakoan komunitateetako gizonezkoen maila berean parte hartzeko. Zuk zer egingo zenuke haien lekuan? Hartu parte proposatutako jarduera honetan, eta jarri haien lekuan!

¹ Gatazka-egoeran dauden eremuetatik datozen mineralen hornikuntza arduratsuari buruzko Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) gidalerroek gaitzetsi egiten dituzte Kongoko E.D.-an artisau-meatzaritzarekin zerikusia duten abusuak, bereziki haurren eta emakumeen aurkakoak direnean; hala eta guztiz ere, ez dute emakumeen partaidetza debekatzen mineralen balio-katean, zenbait gizonezkoek beren interesei begira eskatzen duten moduan.

PROPOSATUTAKO JARDUERA

JARRI HAIEN LEKUAN!

Helburua: Kongoko emakumeek meatze-komunitateetan jorratzen dituzten rolak bistaratzea eta egunero pairatzen dituzten bidegabekeriaren kausak identifikatzea.

Materiala: Rol hauek papertxoetan kopiatu eta jardueran parte hartuko dutenen artean banatzea proposatzen dizuegu. Papertxo horietan jasotzen dira artisau-meatzaritzan parte hartzen dutenen eginkizunak, interesak eta helburuak.

Zk	Rola	Eginkizuna	Bizi-baldintzak	Helburuak
1	Meatzearen jabea	Meatzea kontrolatzen duzu. Minerala saltzen diezu tokiko merkatariei.	8 orduz egiten duzu lan. 25 dolar / koltan kilogramoa Zure seme-alabak atzerrira bidal ditzakezu ikastera.	Denak berdin jarraitzea.
2	Hargina	Minerala erazten duzu. Pikotxarekin eta palarekin egiten duzu lan.	14 orduko lanaldiak egiten dituzu. Egunean 2 dolar kobratzen dituzu. Lan-arrisku ugari.	Soldata igotzea. Baldintzak hobetzea. Ez duzu nahi emakumeek meatzaritzan parte hartzerik.
3	Prozesatzailea	Mineralak birrintzen dituzu. Mineralak substantzia toxikoekin garbitzen dituzu. Zakuetan sartzen dituzu.	14 orduz egiten duzu lan. Egunean 1 dolar kobratzen duzu. Zure seme-alabek zurekin egiten dute lan, bakarrik ez uzteko. Kutsatutako ura edaten duzu. Osasun-arazoak.	Soldata igotzea. Zure seme-alabak eskolara eraman ahal izatea. Osasunerako sarbidea. Toxikoak ez erabiltzeko prestakuntza.
4	Garraiolaria	Zakuak herriraino garraiatzen dituzu. 50 kilogramo pisatzera hel daitezke.	14 orduz egiten duzu lan. Segurtasun falta bidean. Egunean dolar erdia kobratzen duzu.	Errepideak hobetzea. Gurdiak edukitzea. Zama txikiagoa. Segurtasun handiagoa.
5	Ekintzailea	Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen diezu. Haien eskubideak defendatzen dituzu.	GKE batean egiten duzu lan. Erabakiguneetan hartzen duzu parte	Garapen-plana egitea, emakumeek ahotsa eta botoa izan ditzaten
6	Tokiko merkataria	Koltana erosten diozu 1. zenbakari Nazioarteko merkatuetan saltzen duzu.	Multinazionalak hertsatu egiten zaituzte, koltanaren prezioa ahalik eta gehien jaisteko.	Ahalik eta etekin handiena ateratzea.
7	Agintaria	Mineralaren merkatua arautzen duzu.	Merkatua arautzeko agintea duzu (zergak, 1. eta 6. zenbakien erantzukizunak)	Komunitatearen garapena hobetzea.

Garapena: Rolak banatu jardueran parte hartzen duten pertsonen artean. Taldea handia bada, batek baino gehiagok egin dezakete rol bera. Taldea txikia bada, 3. eta 4. zenbakietako emakumeen rolak 5. zenbakikoak ordezkatzeko, haien izenean ekintzailea izango baita.

1. zatia. Taldeak gelan banatuko dira kateko ordenari jarraiki, eta denbora-tarte bat utziko diegu ordezkatzeko duten rola irakurtzeko eta web-esteken bitartez dokumenta daitezen.

2. zatia. Talde bakoitzak gainerakoei azalduko die zein diren ordezkatzeko duen kolektiboaren eginkizunak eta bizi-baldintzak, kateko ordenari jarraiki. Besteek entzun egingo dute. Lehen taldeak amaitzen duenean, minerala ordezkatzeko duen elementu sinboliko bat (baloia edo puxika) pasa dezakezue, hurrengo taldeari txanda emateko.

3. zatia. Behin rolak azalduta, elkarrizketarako tarte zabalduko dugu, garapen-plana lantzeko. Elkarrizketan parte hartuko dute: 1, 2, 5 (ekintzaileak emakume guztiak ordezkatzeko ditu), 6 eta 7.

Mahai-ingururako galderak: Zein dira komunitateak dituen behar larrienak? Zer bidegabekeria daude sisteman? Norena da horiek irauterazteagatik erantzukizuna? Nork du horiek aldatzeko boterea?

Bateratze-lana: Bidegabekeriak josten diren egoerak aldatzeko alderdi bakoitzak hartu beharreko neurriak definitu behar dira.

ESTEKA INTERESGARRIAK:

Emakumeen aurkako indarkeria, Synergie des Femmes eta Bulengo etxearen bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=iOSlwBHPjco&t=13s>

Nolakoa da meategi bat barrutik? En tierra Hostil programako bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=ofZQ4ZRY-1I>

Artisau-meatzaritzan eta emakumeen gaian aditua den emakume bati egindako elkarrizketa [Ingelesa]:

<https://www.youtube.com/watch?v=Wxj9QZF1Gg&t=300s>

Emakumeen aurkako indarkeria, meatzaritza eta ahalduntzea, Munduko Bankua:

<http://www.bancomundial.org/es/news/feature/2015/05/04/empowering-women-in-the-mines-of-the-eastern-democratic-republic-of-the-congo>

ALBOAN eta Synergie des Femmes elkarteek emakumeei eta artisau-meatzaritzari buruz egindako ikerketa:

<https://www.tecnologialibredeconflicto.org/materiales-educativos/>

-en proiektu bat

lortzearen alde

Laguntzaileak:



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org



www.gatazkarikgabekoteknologia.org



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzaren Bulegoa
Negociado de Cooperación